

GAKO EKONOMIKOAK

- Ekonomiaren hobekuntza, Europan gehienbat, indarra galtzen hasi denaren beldurra. Kezkak areagotzen doaz arlo geopolitikoan.
- Murrizketa eta hegazkortasunaren areagotze hilabetea burtsetan.
- Kreditu diferentzialen gorakada moderatuak errenta finkoan. Zor publikoko interes-tasak, aldiz, berriz egin dute beherantz.
- Ipar Amerikako dolarren igoera, babes aktibo gisa.

MAKROEKONOMIA ETA MERKATUAK

Hilean zehar, azken hilearen bukaeran gehienbat, osasun krisialdiaren inguruko kezka areagotu da, mundu osoan bizi dugun kutsatze kasuen igoera handiaren ondorioz. Merkatuek beherantz egin dute pandemiaren bilakaera izan daitekeenaren eraginez eta osasun sistemek gobernuei biztanleria konfinatzera eraman dezaketen beldur, Europan gehienbat. Egoera horren ondorioz, zalantzak sortu dira ekonomiaren berpiztearen inguruan. Bigarren hiruhilekoan bizitako geldialdi historikoaren ondoren jardura nabarmen berpizten zela ikusi badugu ere, etorkizuneko ekonomiaren hazkuntzak alde handiak ditu mundu mailan: igoera handia izan du Txinan, AEBk nolabait hobe eutsi dio eta Europan mantsotu egin da, azken agerraldian BCEren presidentek onartu zuen bezala. Bileran hartan, interes-tasak egonkor mantendu zituen baina moneta politikako tresna guztien neurria berriz hartzeko asmoa adierazi zuen, ekonomiari hobetzen laguntzeko eta pandemiaren bigarren olatuaren efektuak arintzeko baliagarriak diren finantzazio baldintzak bermatze aldera. Beraz, badirudi abenduan pizgarrien beste sorta bat aterako dutela. Bien bitartean, FEDak argitaratutako azken aktetan ikus zitekeen Erreserba Federalaren helburuetan bira berri bat gauzatzeko moduan adostasunik ez dagoela. Arlo geopolitikoan ere zarata handia izan da hilabete honetan. Erresuma Batuan gatazkak bizi dituzte oraindik ere Europar Batasunarekin dituzten negoziatioetan, eta litekeena da Brexit gogorra izatea urte bukaeran, beste orban bat europar hazkundearentzat. AEBtan kezka areagotuz doa azaroko presidentea hautatzeko hauteskundeak begira. Lehenengo eztabaidan irainak eta bata besteari etetea izan ziren nagusi. Ondoren, Trumpek positibo eman zuen eta piztu ziren alarma guztiak. Azkenik, alta eman zioten eta hauteskudeen kanpainaren kezka murriztu zen. Testuinguru horretan, eta nahiz eta hilabeteak zergen inguruko adostasun baten itxaropenarekin hasten bazen ere, Trumpek demokratek eta errepublikanoen arteko negoziatioak eteten zituela iragarri zuen, hauteskudeen aurretik. Azkenik, bai AEBn bai Europan 3. hiruhileko enpresa emaitzak argitaratzeko denboraldia eremu negatiboan dago baina, oro har, espero zena baino hobeto.

ERRENTA ALDAKORRA

Urriak burtsa indize nagusietan emaitza negatiboekin itxi du. Hilaren hasieran Estatu Batuetako hauteskundeetako eztabaidek eta Amerikako zerga pizgarrien sortaren inguruko jarrera desberdinek markatu zuten bidea, beraz, merkatu batzuen eta besteen artean jarrera desberdinak ikusi ziren. Halere, hilaren bukaeran, ezkortasuna nagusitu da inbertitzaileen artean, eta eroriko handiak bizi izan dira burtsan. Amerikako hauteskudeen aurreko kezkak eta pandemiaren okertzeak, indize nagusiak urria zerbaki gorrietan amaitzea eragin du. Hala, Estatu Batuetan, Dow Jones indizeak % 4,61eko erorikoarekin itxi zuen, handiena martxoaz geroztik. Bestetik, S&P500 eta Nasdaq indizeek % 2,77 eta % 3,20 egin zuten atzera, hurrenez hurren. Erorikoak handiagoak izan dira Europan, non Dax indizeak ia % 10 galdu duen eta Eurostoxx indizeak, aldiz, -% 7,37. Ibex35k % 3,94ko erorikoarekin itxi du hilabetea, azken astean zehar % 6,4 galdu ondoren, eta ekainetik bizitako asterik txarrena biziaz. Nazioarteko gainerako merkatuetan, Japoniak ere ez ditu ekiditu ahal izan zerbaki gorriak. Emergenteen indizea, aldiz, % 1,98 igo da, bere osotasunean.

INDIZEA	ESKUALDEA	ORAINGO MAILA	DIBISA	HILEKO ALDAK.	2020ko ALDAK.
IBEX-35	ESPAINIA	6.452,20	EUR	%-3,94	%-32,43
EUROSTOXX-50	EUROPA	2.958,21	EUR	%-7,37	%-21,01
S&P-500	AEB	3.269,96	USD	%-2,77	%1,21
DOW JONES	AEB	26.501,60	USD	%-4,61	%-7,14
NASDAQ 100	AEB	11.052,95	USD	%-3,20	%26,56
NIKKEI-225	JAPONIA	22.977,13	JPY	%-0,90	%-2,87
EMERG. MSCI	EMERGENTEAK	1.103,46	USD	%1,98	%-1,00
MUNDUKO MSCI	GLOBALA	201,00	EUR	%-2,49	%-6,31

Iturria: Bloomberg

ERRENTA FINKOIA

Europan murrizketak areagotu ahala arriskuari gero eta beldur handiagoak zor publikoko tasak murriztea eragin du, bai amerikarra, eta bereziki alemaniarra, zeinek 10 urterako erreferentzia -% 0,60tik behera erori den. Espainiako 10 urterako bonoak 11pbs-ko jaitzierarekin bukatu zuen hila, eta arrisku prima hilaren hasieran murriztu zen. Bigarren partean, aldiz, hobetu zen eta hilea ia aldaketarik gabe bukatu zuen. Errenta finko pribatuko bonuen diferentzialek, aldiz, gorakadak izan dituzte, kreditu kalitate txikiagokoetan gehienbat, burtsek bizitako arriskuaren aurkako mugimenduaren ildo beretik.


INDIZEA	EPEA	ORAINGO MAILA	HILEKO ALDAK.	2020ko ALDAK.
EURIBOR	3 HIL.	-0,52	-0,03	-0,14
	6 HIL.	-0,52	-0,05	-0,20
	12 HIL.	-0,49	-0,06	-0,25
ALEMANIAKO ZOR PUBLIKOIA	2 URTE	-0,79	-9,30	-19,30
	5 URTE	-0,82	-11,00	-34,70
	10 URTE	-0,63	-10,50	-44,20
ESPAINIAKO ZOR PUBLIKOIA	2 URTE	-0,58	-6,70	-18,80
	5 URTE	-0,33	-3,10	-24,90
	10 URTE	0,14	-11,30	-33,30

Iturria: Bloomberg

DIBISAK ETA LEHENGAIK

Errenta aldakorreko hegazkortasuna dibisen merkatura eta petrolioaren merkatura iritsi da. Hileko mugimendurik nabarmenena Ipar Amerikako dolarren igoera izan da, babes aktibo gisa. Billete berdeak 1,165\$/euro balio zuen hilaren bukaeran. Bestetik, libera esterlina ere jaitsi da, Brexitaren kezkak bultzatuta. Lehengaien merkaturak, petrolioak % 10 inguru galdu du, eta hurrengo hilotan gordin eskaeraren inguruan mugikortasunaren murrizketa neurrien inpaktua bildu du.

Euro/Dolar



Iturria: Bloomberg